

Sormena, “s” txikiarekin

Alan Maley

Alan Maley artikulua egileak dioenez, irakasle asko kexu dira beren irudimena nahi bezain zabala ez dutelako irakasterakoan. Ez dator Alan Maley iritzi horrekin bat. Bere ustez, sormena askoz ere zabaldago dago uste dugun baino. Eta hainbat bide eskaintzera dator, irakurgaiak lantzeko eta ustiatzeko eta, horiek adibide gisa harturik, apur bat saiatur, irakasleek jardunbide berriak asmatu eta urratzeko.

“Ez naiz batere kreatiboa”.

“Nik uste dut ez dudala batere irudimenik”.

“Nahiago nuke X bezain kreatiboa banintz...”

Halako komentarioak sarri-sarri entzuten dira irakasleen ahotan, tailerre-tan edo trebakuntza ikastaroetan. Hitz horietatik zera ulertzen da, sormena hain dela gauza berezia non zorioneko gutxi batzuek besterik ez duten bedeinkapen hori. Artikulu labur honetan erakutsi nahi nuke sormena askoz ere zabaldago dagoela uste ohi duguna baino, ez duela halabeharrez suposatzen mundua astintzeko moduko ekintza kreatiboak egin behar direnik, eta denok garela gai sormen-neurri bat izateko.

Jakina, badira jenio sortzailearen erraldoi horiek: Newtonak, Mozartak, Picassoak, Walt Whitmanak, Einsteinak. Denek erakutsi dute “H” tipoko sormena deitu izan zaiona, hots, sormen Historikoa. Pertsona batek “H” tipoko sormena daukanean ordura arte inork sortu edo aurkitu ez duen gauza bat sortzen edo aurkitzen du. Baina badago beste era bateko sormen bat ere, “P” tipokoa, hots, sormen Psikologikoa (Boden, 1992). “P” tipoko sormena daukanean, pertsona batek sortu edo aurkitzen du berak ordura arte sekula sortu edo aurkitu ez duen gauza bat, nahiz eta agian beste batzuek berak baino lehenago lortuko zuten gauza bera. Gutxik lortzen dute “H” tipoko sormena, baina denok landu ahal dugu “P” tipokoa, “s” txikiko sormena.

Begiratzeko modu berriak

Sormen tipo bien (“H” zein “P” moten) ezaugarri garrantzitsu bat zera da: ezagunak ditugun gauzei modu berrietan begiratzeko trebezia, eta lehen erlazionatzen ez genituen gauzen artean harreman berriak aurkitzekoa. Copernicok modu berrian begiratu zion eguneroko eguzkiari, eta iraultza eragin zuen astronomian. Arkimedesek, adimenaren argiztada inspiratu batez, bere gorputzak bainontzian kanporatzen zuen ura eta

metalen grabitate espezifikoa lotu zituen. Baina ba al da prozesu horiek bultzatzeko modurik? Beste hitzez esanda, zaindu ahal dugu, edo are trebatu ere, gure sormena?

Nik uste dut badirela gure ohiko jokabideei aplikatu ahal dizkiegun zenbait prozedura, ohituraren moldeak apurtzen laguntzen dutenak, eta, beraz, bidea ematen digutenak gauzak era alternatiboetan egiteko. Jakina, horrek berez ez du ziurtatzen alternatibak hobeak izango direnik beti. Baina, aproba egiten ez dugun artean, ez dugu jakingo. *Breaking Rules* liburuan (1987), John Fanselow-k “Egizu kontrakoa” prozedura heuristikoa defendatzen du. Normalean aurrealdean egoten bazara, jar zaitez atzealdean. Normalean berba asko egiten baduzu, geratu isilik. Ikasleen idazlanak zuzendu ohi badituzu, bueltatu lanak zuzendu barik eta eskatu ikasleei eurek zuzentzeko.

Interesgarria da metodologia alternatiboetako batzuk Fanselow-ren gomendioen argitan aztertzea: CLLn¹ ikasleek erabakitzen dute egitekoen zerrenda, eta irakasleak (“dakienak”) betetzen du; Bide Isilean irakasleak beragandik espero denaren kontrakoa egiten du, luzaro isilik geratuz; Sugestopedian testu ikaragarri luzeak erabiltzen dira, oso testu laburrak erabili beharrean, eta horrela lasai aritzeari ematen zaio garrantzia, eta ez esfortzuari, batere “naturala” ez den irakurketa modua bultzatuz; TPR-n² ikasleei ez zaie eskatzen berba egiteko, entzuteko baino. Planteamendu hauen guztien originaltasuna, neurri batean bederen, “normaltzat” jo ohi denaren kontrakoa egitean datza.

Heuristikarik erabilienak

Hona hemen heuristikarik erabilienetako batzuk, geure burua ohituraren ildotik atera eta lotura kreatiboak pizteko:

- *Iruntzitara.*– “Egizu kontrakoa”. Hiru adibide posible: ikasleek irakaslearen papera hartzea eta taldeari eurek dakiten zerbait irakastea; irakurgai bateko ulermen galderak ikasleek idaztea; testu bat bukaeratik irakurtzen hastea, hasieratik hasi beharrean.
- *Hedatzea/trinkotzea.*– Jonathan Swift-ek Gulliver-ekin erabilitako printzipioa. Poema luze bat haiku bihur daiteke, edo kontrakoa (ikus Widdowson 1992). Testu bat modu jakinetan luza daiteke, adberbioak erantsiz, autorearen iruzkinak gehituz etab.
- *Berrantolaketa.*– Esate baterako, ikasleek kontakizun bateko gertaerak berrantolatu ahal dituzte hurrenkera diferentean. (Hau fikzioan *flash back*aren bidez egiten da sarritan). Klasean egin ohi diren gauzen betiko hurrenkera berrantola dezakegu. Ikasgelako antolaera fisikoa alda daiteke.
- *Konbinaketa.*– Adibidez, ageriko loturarik ez daukaten testu, argazki, gauza edo pertsona bi edo gehiago elkartzea. Lotura bilatzea litzateke hemen zeregina. Surrealistek erabilitako teknika asko prozedura honetan oinarritzen dira.

Berformulaketa.– Testu edo gertaera jakin bat modu desberdinean erabiltzea, beste jenero bat erabiliz, kasurako (egunkariko artikulua bat poema bihurtuz), edo tonua edo ikuspuntua aldatuz (Kurosawa-ren *Rashomon*

pelikula famatuan bezala, non gertaera berberak ikuspuntu desberdinetatik deskribatzen diren). Berformulaketaz balia gaitzek, halaber, ikasgela osoa goitik eta behera aldatzeko, egunkari bateko erredakzio, antzoki edo epaitegi bilakatuz.

Era honetako proposamenekin esperimentatzeko prest bagaude, nik uste dut angelu berri eta interesgarriak aurkituko dizkiogula gure jokabideari. (Ikus Maley 1993, 1995a).

Artikulu honetako gainerako partean apur bat zehatzago azalduko ditut goian deskribatu ditudan heuristiketatik modu batean edo bestean datozen ariketa/teknika batzuk. Espero dut zuek teknika/ariketa horiek erabili nahi izatea, baina, are hobeto, espero dut horietatik ideia berriak sortu eta zuek zeuok garatzea.

Ariketak

Oro har, ikasgelan testuak erabiltzearen inguruan arituko naiz. Ahozko/entzunezko testuak erabiltzeko bost ideia proposatuko ditut, eta beste bost ideia idazgai/irakurgaiak erabiltzeko. Gauzak errazago eman aldera, hiru zati egingo ditut ideia bakoitza azaltzeko: deskribapena, adibidea, azalpena.

Bost ideia ahozko edota entzunezko testuak erabiltzeko

1. Permutazioak

– Deskribapena

Bilatu testu bat zeinetan lerro guztiak edozein ordenatan esan daitezkeen, edo zuk zeuk idatzi testua. Ikasleek ideia harrapatuta dutenean, hala-ko bat idazteko eskatu ahal zaie. Zuk testua irakurriko diezu, eta ikasleek, ahal dela, begiak itxita entzungo dizute. Behin jatorrizko ordenan irakurriko duzu, hasieratik bukaerara. Gero lerroen ordena aldatzen hasiko zara, ia-ia modu hipnotikoan irakurriaz. Zure irakurketak tonu bat, irudi sorta-bat edo lotura-sare jakin bat iradoki beharko luke. Teknika hau behin eta berriro erabili eta gero, eurek irakurtzeko eska diezaiekezu ikasleei.

– Adibideak

Inork ez du ezagutzen gizonak maite duen andrea.
Gizonak inork ezagutzen ez duen andrea maite du.
Gizonak inork maite ez duen andrea ezagutzen du.
Inork ezagutzen ez duen andrea maite du gizonak.
Inork maite ez duen andrea ezagutzen du gizonak.
Gizonak maite duen andreak ez du inor ezagutzen.
Inork ez du maite gizonak ezagutzen duen andrea.
Gizonak ezagutzen duen andreak ez du inor maite.
Gizonak ezagutzen duen inork ez du andrea maite.
Gizonak maite duen inork ez du ezagutzen andrea.
Andreak ez du maite gizonak ezagutzen duen inor.
Andreak ez du ezagutzen gizonak maite duen inor.

Hotza da.
Dardarka nago haizearen pean.
Elurra ari da.
Zuhaitzak biluzik daude.
Inor naiz eta bakarrik nago.
Inor ez da etxe aurretik pasatzen.
Haizea txistuka zuhaitzetan.
Lakua izoztuta dago.
Gaua abailtzen ari da.
Jatekorik ez mahaian.
Surik ez sutondoan.
Txori kanturik ez.
Etxea hiltzen ari da.
Nork aurkituko ote nau?

A. M.³

– Azalpena

Ariketa hau berrantolaketa- heuristika oinarritzen da gehienbat. Hemen irakurketaren kalitatea dugu garrantzitsu: iradokiorra eta ia-ia hipnotikoa izan beharko litzateke, Sugestopediako kontzertu-irakurketaren antzekoa, pixka bat. Ikasleek euren sentimendu eta asoziazioei erreparatu beharko liekete, eta euren burua testuaren mende utzi, blai ditzan. Honelako irakurketarekin, ikasleak hizkuntza arrotzaren ehunduraz jabetu ahal dira, eta hori euren esperientzia eta emozioekin erlazionatu. Oso esperientzia indartsua izan daiteke ikasleentzat. Egoki ikusten baduzu, irakurketaren ostean eztabaida egon daiteke, testua irakurri bitartean ikasleek sentitu dutenaz edo testuaren ezaugarri formalez. Bestalde, testuari lerroak eransteko esan ahal diegu ikasleei. Era berean, taldeko irakurketa dramatizatua ere egin daiteke. (Ikus taldeko irakurketa orkestratua, beheherago).

2. Doinuaz irakurriz – Deskribapena

Aukeratu era batera baino gehiagotara irakur daitekeen testu labur bat. Esan ikasleei begiak ixteko eta irakurriezu testua. Hasieran ahots “normalaz” irakurri. Gero modu diferenteetara irakurri. Adibidez, xuxurlaka leitu ahal duzu, edo astiro eta ahots sakonaz, edo arin eta arnasestuka, edo haserre bazina bezala, edo aspertuta dagoenaren moduan, edo nahigabetuta, edo ezinegonez etab.

– Adibidea

Nahiko erraza izan zitzaion lekua berriz aurkitzea: herriko kalea utzi, errebueltatxikia hartu eskumatarantz, eta gero eliza zuriztatuen aurrez aurreko sartune estura jo. Bertatik sartu eta altzipresaren azpian aparkatu zuen. Arrotza zirudien denak, ordea. Bere oroimenean herria hiritik kilometrotara zegoen. Orain, berriz, hiriaren parte ematen zuen ia. Baina umeak oinekin neurtzen du, eta umezaroko distantziak gogoan gordetzen dira.

(Alan Maley. 1995b)

– Azalpena

Teknika hau berformulaketan oinarritzen da batez ere. Gehienetan gure ikasleek testu baten bertsio edo irakurketa bakarra baino ez dute entzuten. Baina ez dago berdinak diren irakurketa bi. Eta berba batek esanahi berriak bereganatzen ditu era desberdinetara esaten denean. Hizkuntza bat erabiltzerakoan garrantzitsua da lerro artean entzuteko trebezia gartztea. Ikasleei aniztasun hori aurrez aurre jartzen diegunean aukera ematen diegu testuaz era desberdinetan “jabetzeko”, “zer” galderaz gain, “zelan” galderari ere erreparatzen baitiogu. Era berean, honek modua ematen digu testu bat askotan errepikatzeko berarekin nekatu barik, bakoitzean desberdina delako. Egoki baderitzozu, bultzatu ikasleak testua eurek gura dituzten tonuetan irakurtzera.

3. Taldeko irakurketa orkestratua

– Deskribapena

Aukera ezazu taldean irakurtzeko aukera ematen duen testu bat. Antzezlan bateko korua izan daiteke (esaterako, Ted Hughes-ek Seneca-ren *Oedipus*-ekin egindako bertsioa), edo poema bat, lelo bat edo ahots desberdinak dauzkana, adibidez *villanelle* bat (ikus beheargo). Ikasleak taldeka jarriko dira, eta talde bakoitzak erabakiko du zelan egin irakurketa dramatizatua, esate baterako ikasle batzuek lerro jakin batzuk irakurriz, eta beste ikasle batzuek beste lerro jakin batzuk. Erabaki dezakete, adibidibez, lerro batzuk ikasle bakar batek irakurtzea, beste batzuk talde txiki batek eta beste batzuk, berriz, talde osoak. Gero entsegu bat egingo dute, testua guztien aurrean irakurri baino lehen.

– Adibidea⁴

Gure maitasuna akaburantz doa.
Omen genituen sentimenduek gezurra esan dute.
Uste dugu badakigula zer nahi dugun.
Ez da gutunik geratzen bidaltzeko.
Elkarrekin landatutako loreak hil berri dira.
Gure maitasuna akaburantz doa.
Ez da emoziorik geratzen izateko;
Irtenbide guztiak saiatu ditugu.
Uste dugu badakigula zer nahi dugun.
Ezin naiteke maitaletik adiskidera pasatu;
Ez zu ez ni ez ginateke gustura egongo;
Gure maitasuna akaburantz doa.
Maitasunaren beloa apartatzen hasi da.
Orain badakigu erabaki bat hartu behar dugula.
Uste dugu badakigula zer nahi dugun.
Neurtu ditugu jaitsi behar ditugun sakonerak.
Itotzen ari gara gure negarren malkoetan.
Gure maitasuna akaburantz doa.
Uste dugu badakigula zer nahi dugun.

A. M.

– Azalpena

Ariketa hau berkonbinaketaren heuristikaz baliatzen da nagusiki. Testua antzetztean –eta ez bakarrik irakurtzean– sortzen den ahots egitura aberatsak testuaren esperientzia betegarriago eta sakonagoa bideratzen du. Honelako testu bat barrutik irakurtzea gauza bat da; testua esperientzia estetiko gisa antzetztea oso bestelakoa da. Berriz ere, halan egiteak parada ematen die ikasleei “zelan” galderari erreparatzeko, eta ez bakarrik “zer” galderari. Testua emateko era desberdinak saiatuz, bestalde, ikasleek behin eta berriro izan dezakete testuaren esperientzia berorretaz aspertu barik.

4. Rolekin irakurriz

– Deskribapena

Aukeratu “ahots” desberdinak dauzkan testu bat. (Elkarrizketa zuzenaren bidez azal daitezke ahotsok, edota zeharkako hizketaren formaren

baten bidez). Ikasleak taldeka jarriko dira testuaren irakurketa dramatizatua prestatzeko. Testuko pertsonaia bakoitza (eta kontalaria, halakorik badago) ikasle batek irakurriko du. Denbora emango zaie testua ondo komentatu eta bakoitzaren pertsonaia zehazteko. Entsaiaiu ostean, beste talde bati edo talde handiari aurkeztuko diote testua.

– *Adibidea*

Ordu erdi joan zen Vish eta Molly gelara sartu baino lehen. Ordurako arras urduri zegoen.

Vish lodituta zegoen. Orain koipeak inguratzen zizkion begiak, sudurra eta ahoa. Ematen zuen tolestura guzti horien azpian arratoi txiki eta azkar bat zegoela harrapatuta. Nolanahi ere, begiak sekula bezain zorrotz eta zital zituen, eta Dick-ek hain ondo gogoratzen zuen irribarre desatsegin hura ageri zuen ahoan, aurreko hortz handi biak bistan utziz. Molly ere gizenduta zegoen, baina arropaz ezkututzen zuen. Kontu handiz zeraman gorputza bilduta Mysore zetazko *sari* garestian, baina horrek ere ezin zuen loditasuna ostendu. Dick-ek gogoan zuena baino pintura gehiago zeraman aurpegian. Baina haren begiek ere distira arriskutsua ageri zuten, azkenekoz ikusi zuenean bezalaxe. Vish arratoia bazen, sugea zen Molly.

“Hemen gaude berriro, beraz. Baina oraingoan zu ez zara nagusia. Izatez, ez zinen egundo nagusia izan, orain dakizun bezala. Badirudi zure ardura-koak ez diren kontuetan sartzen ibili zarela”.

“Nire ardurakoak ez diren kontuetan?” esan zuen Dick-ek. “Uste dut gogoa dudala kontu horiexengatik galdu nuela lanpostua, hain zuzen. Bai eta nire lagun batzuek ere”.

“Hori zure irudimena besterik ez da. Nork sinestuko dizu? Beste norbaiti bota gura diozu errua, hori baino ez”, esan zuen Vish-ek.

“Hain zara patetikoa”, erantsi zuen Molly-k, bere ahots min hartan. “Uste dut jakingo duzula laneko inork ez zintuela sekula errespetatu. Ezin diet errurik bota horregatik”. Gorroto hutsezko begirada bat jaurtiki zion.

Dick isilik geratu zen, erantzuteari uko eginez. Hura guztia norantz zihoan jakin nahi zuen ezer esan baino lehen.

Vish mintzatu zen berriro: “Edozein modutan, zuk omen dakizun hori esango bazenu ere, zertan aldatuko lirateke gauzak guretzat? Nori axola zaizkio kontu horiek? Gainera, ukatu egingo dugu dena nolanahi ere. Eta hemen ezin diguzu ezer egin. Muturra sartzen dabilen atzerritar bat baino ez zara. Eta zure ardura hartu ahal duten lagun asko dauzkatz”.

“Oh, nik uste dut jende dexenteri interesatuko litzaiozkeela kontu horiek, zuk ez?”. Dick-ek erabaki zuen berba egiteko garaia iritsia zela. “Hasteko, John Verghese dugu. Ziur naiz benetan poztuko litzatekeela bere gurasoak nortzuk diren jakiteaz. Pozez zoratzen jarriko litzateke jakitean bere amak bazter utzi zuela ume ttiki bat zenean”.

“Sasikumea!” egin zuen Molly-k garrasi. “Uste al duzu hori egin eta zeurea ateratzen utziko nizukeela?”

Halako batean Dick ohartu zen irabazi egin zuela. Ez zekiten Molly-ren umearen berri zeukanik. Haridas auzia ikertzen ibilia zela baino ez zekiten. Harrapatuta zituen”.

(Alan Maley, 1996)

– Azalpena

Ariketa hau berformulaketaren heuristikan oinarritzen da. Irakurketa dramatizatu beharrak testua sakonagotik ulertzea dakar. Ez dago testu batean antzezleak bezala sartzeari bezalakorik berori hobeto ulertzeko. Hau areagotu egiten da talde desberdinek interpretazio diferenteak eskaintzen dituztenean, eta gero eztabaidatzen denean zein hurbildu zaion gehien testuaren izpirituari edo hitzei. Ariketa honen beste pauso bat izan daiteke taldeei eskatzea testuaren gidoia egiteko. Gidoian, elkarriaz gain, mogimendu, jarrera eta abarren gaineko argibideak jasoko lirateke. Gero ikasleek telesail edo filme baten zatia balitz bezala antzez-tu ahalko lukete eskena. Ariketa zailago egin daiteke elkarriazketa ez-baina zeharkako hizketa/ekintzak dauzkaten testuak aukeratuz. Ahozko testu bat emateko beste era batzuk ikusi nahi izanez gero, ikus Maley eta Duff (1989).

5. Motibazioak – Deskribapena

Aukeratu ipuin labur bat edo nobela baten edo egunkari bateko artikulua baten zati bat, garbiro erakusten duena zelan jokatu duen pertsonaia batek edo gehiagok. (Ikus beheago). Ikasleak taldeka jarriko dira, eta batzuen pertsonaien rolak hartuko dituzte, eta beste batzuek, berriz, “galdegileen” rolak. Galdegileak kazetariak, poliziak, psikologoak, senide hurbilak etab. izan daitezke, testuaren arabera. Galdegileen zeregina pertsonaien ekintzak ikertzea da, hartara hobeto ulertzeko zergatik jokatu zuten jokatu zuten moduan (Kramsch, 1993).

– Adibideak

Hemen ez dugu lekurik testu osoak sartzeko. Hala ere, imajinatu ariketa hau Golding-en *Eulien Ugazaba* nobelaren amaieran agertzen den erreskate untzian egindako ikerketa dela, zeinetan itsasoko polizia saiatzan den deskubritzen zein motibazio dagoen Piggy eta Simon-en heriotzaren atzean.

Neure ipuin batean –“Fire! Fire!” izenekoa – nekazari frantses zahar bat su ematen hasi da atzeritarrek bere eskualdean erositako etxeei (Maley 1997). Kasu honetan ikerketa judizialak azter litzake alde batetik haren motibazioa eta haren ekintzen balizko justifikazioa, eta bestetik, etxejabe atzeritarrek egiten dituzten badaezpadako aldarrikapen moralak.

Ariketa hau antzerkiko pertsonaiekin ere egin daiteke –Othello-rekin adibidez– edo poemetako pertsonaiekin : “Marinel Zaharra” datorkit gogora.

– Azalpena

Hau berformulaketaren ideian oinarritzen da. Pertsonaia batean sartu eta bere motibazioak ulertuaz, ikaslea askoz ere gehiago inplikatzan da, testuko hitzen axaleko esangurak beste barik adituaz baino. Gainera, honek gai garrantzitsuak eztabaidatzea ere badakar: zer da gaiztoa izatea? Zelako garrantzia dauka bizitzak? Zergatik dauka gudan halako eragin

handia besteen iritziak? etab. Ariketa honen aldaki bat izan liteke ezta-baidatzea zelan jokatu lukeen pertsonaia jakin batek jatorrizko ipuin edo nobelan azaltzen ez den egoera batean. (Ikus Greenwood, 1988).

Bost ideia idazgaiak/irakurgaiak erabiltzeko

1. Berba sortak

– Deskribapena

Aukeratu testu labur bat zeinetan hitzak sarritan errepikatzen diren. Egin testuan azaltzen diren hitz desberdin guztien zerrenda. Ikasleek berba-sorta hori erabili beharko dute ahalik eta esaldi gehien idazteko, baina sortako hitzak besterik ezin izango dituzte erabili. Gero hirunaka jarriko dira euren esaldiak erkatzeko, eta testu bat idatziko dute horien artetik hautatuko esaldiekin. Azkenik, jatorrizko testua emango zaie, euren idatzi dutenarekin aldera dezaten. (Ikus Maley, 1993).

– Adibidea:

Jatorrizko testua

Ez zidan sekula lorerik bidali. Ez zidan sekula gutunik idatzi. Ez ninduen sekula jatetxeetara eraman. Inoiz ez zidan maitasuna aipatu. Parkeetan elkartzan ginen. Ez dut gogoan zer esaten zuen, baina gogoratzen dut zelan esaten zuen. Dena dela, isiltasuna zen gehiena. (Lescek Szkutnik).

Berba-sorta

<i>isiltasuna</i>	<i>zen</i>	<i>zidan</i>
<i>inoiz</i>	<i>sekula</i>	<i>jatetxeetara</i>
<i>bidali</i>	<i>elkartzan</i>	<i>aipatu</i>
<i>eraman</i>	<i>gutunik</i>	<i>esaten</i>
<i>ez</i>	<i>ninduen</i>	<i>maitasuna</i>
<i>dena dela</i>	<i>gogoratzen</i>	<i>dut</i>
<i>idatzi</i>	<i>parkeetan</i>	<i>lorerik</i>
<i>zer</i>	<i>gogoan</i>	<i>zuen</i>
<i>ginen</i>	<i>gehiena</i>	<i>zelan</i>
<i>baina</i>		

– Azalpena

Ariketa berrantolaketa eta konbinaketaz baliatzen da. Zentzu batean parada ematen die ikasleei irakurriko duten testua eratzeko berori ikusi baino lehen. Bukaeran ikasleak oso pozik ibiltzen dira euren testuak jatorrizko testuarekin erkatzen, batez ere euren esaldietako batzuk jatorrizkoan azatzen direnen berdin-berdinak direla ikusten dutenean. Ariketa hau indar handikoa da, maila desberdinetako ikasleek hartu ahal dutelako parte: maila apaleko ikasleek esaldi gutxiago eta sinpleagoak egingo dituzte, eta goiko mailetako ikasleek esaldi gehiago eta konplexuagoak idatziko dituzte, baina batzuek zein besteek izan ahalko dute esku ariketan, bakoitza bere gaitasunaren neurrian.

2. Testuan harribitxi bila

– Deskribapena

Aukera ezazu testu bat, irudi, sintagma edo hiztegi item indartsuak dituen. Ikasleek testua irakurriko dute, eta ondoren esango diezu aparteko

orri batean idazteko euren iritziz bereziki indartsu edo koloretsuak diren hamar hitz edo sintagma. Gero jaso berriro jatorrizko testuak. Ondoren, esan ikasleei testu berri bat idazteko jatorrizko testutik atera dituzten “harribitxiekin”. Garbi utzi beharko diezu ez direla jatorrizko testua berridazten saiatu behar, testu guztiz berria baino. Amaitzen dutenean, testuak erkatuko dituzte.

– Adibidea

Ken amets nahasi batetik itzartu zen. Apurka-apurka, begiak ezarri zituen. Antzeman zuen lehenengo gaua bere aurpegitik zentimetro gutxitara zegoen eskua izan zen. Atzamarrak txori atzaparrak bezalakoak ziren, zurrinak, hotzaren hotzez urdinduak. Txundituta, eskua berea zela ohartu zen. Orduantxe konturatu zen zernolako hotza zeukan. Berun izoztua bezala sentitzen zituen hezurak. Bezperako gertaera bat gogoratu zuen ; Strand Palace Hoteleko sukaldeko sarreraren inguruan ibilia zen bilin-bolonka, hondakinen bila, eta halako batean furgoneta bat iritsia zen. Gidaria okela pieza oso-osoak hartu eta barrura sartzen hasia zen, haragi zuri-gorria bloke gogorretan jeltua. Orain haragi izoztu hura bezalaxe sentitzen zen, bizkarra hotz eta gogor, gorpu baten antzera.

(Maley, 1995b)

Ikasleek honakoak hauta litzakete:

amets nahasi batetik	txori atzaparrak	hotzaren hotzez urdindua	berun izoztua
bilin-bolonka	hondakinen bila	gogor, gorpu baten antzera	hezurak
haragi jeltua	txundituta		

– Azalpena

Berformulaketatik eta konbinaketatik edaten du ariketa honek. Ikasleen arteko elkarrietzeta oso bizia izaten da, bakoitzak hautatu dituen itemak eta sortu diren testu diferenteak komentatzen direnean. Beste posibilitate bat zera da, ikasleei esatea euren hamar itemak elkarren artean trukatzeko, eta bakoitzak testu bat idazteko ikaskideak aukeratu dituen elementuekin.

3. Testuak bermoldatuz

– Deskribapena

Aukeratu egunkari artikulua nahiko labur bat. Ondo irakurri ostean, ikasleek testu hori moldatu eta beste era bateko idazkia bihurtu beharko dute, adibidez poema bilakatuz, baina ezin izango dute informazioa asko aldatu. Gero euren testu berriak erkatuko dituzte.

– Adibidea

Besoak mugitzea, arazoaren seinale

Bihotzeko gaixotasun koronarioak dituzten pertsonen gehiago mugitu ohi dituzte besoak halako bihotz gaitzik ez daukatenean baino, British Medical Journal-ek argitaratutako azterlan baten arabera.

Hala ere, ez dago garbi ea eskuez keinu gehiago egiten dituzten pertsonen joera handiagoa daukaten bihotzeko arazoak izateko, ala bihotzeko gaitzak

dauzkateneke gehiago mugitzen dituzten besoak, fisikoki inaktiboak direlako edo gaixotasunak berak artegatu egiten dituelako.

“Nik neuk uste dut bizitza osoan barrena besoak mugitzen ibiltzea faktore bat dela –beste batzuen artean– bihotzeko gaixotasun koronarioak garatzeko”, idatzi zuen Alan Rennie doktoreak aldizkariaren ostiraleko edizioan.

Rennie doktorea mediku erretiraturia da. Rennie-k elkarrizketak egin zituen 15 eta 80 urte bitarteko 50 pertsonari, eta euren mugimenduak aztertu zituen 10na minutuko mintzaldietan. Beso bariako aulkian jazarrita zeudela, elkarrizketatuek euren bizimoduaz, osasunaz eta familiaz egin behar zuten berba.

“Hamar minututuko elkarrizketan, bihotzeko gaixotasun koronarioa zeukaten pazienteek gehiago mugitu zituzten besoak, nabarmenki, kontrol taldeko pertsonen baino”, adierazi zuen Rennie-k.

(Straits Times 97/1/13)

Testuaren moldaketa posible bat:

Eskuez agurrik ez; heriotza bakarrik

Kontuz ibili beso kontalari horiekin, aitzitxe.

Beste estatistika bat bihur zintezke...

zure besoak salatari hutsak dira.

Eskuak aztoratzen bazaizkizu,

bihotzak huts egingo dizu segurutik.

Hala dio Rennie doktoreak, eta medikua da.

Kontuan hartu:

besoak mugitzen ibiltzea bizitza osoan barrena,

hori bai ohitura txarra.

Hobe duzu oraintxe bertan apurtzea,

80 urte badituzu ere.

Azkena izan liteke zuretzat.

– Azalpena

Ariketa berformulaketaz eta berrantolaketaz baliatzen da. Testu moldatua ez da poema bat izan behar, jakina. Gutun bat izan liteke, edo iragarri bat (besoen mugimenduak eragozteko bortxazko alkondara batena?), otoitz bat, *chat show* bateko elkarrizketa etab. Batzuetan ikasleek denbora pixka bat behar izaten dute ideiarekin ohitzeko, baina testu-mota bakoitzak bere ezaugarriak dituela ulertzen dutenean, berehala hasten dira ezaugarriok euren testuotan erabiltzen. Ariketa hau bikaina da ikasleek “generoen” eta erregistroen arteko desberdintasunez jabetzeko.

4. Testua berrosatuz – Deskribapena

Aukeratu testu labur bat diktatzeko. Poesia zein prosa izan daiteke. Esan ikasleei ariketaren helburua testua %100ean berrosatzea dela. Testua irakurriko duzu behin, abiadura normalean eta etenik gabe. Amaitzen duzunean, ikasleek gogoratu ahal dituzten hitz edo sintagma guztiak idatziko dituzte, eta gero euren artean komentatuko. Orduan berriz irakurriko diezu testua abiadura normalean. Berririo idatziko dute gogoratu ahal

duten guztia eta ikaskideekin komentatuko dute. Prozesuarekin jarraituko duzu, testua behar adina aldiz irakurriz (baina abiadura normalean beti ere), harik eta ikasleek testua osorik eta guztiz ondo berrosatu dutela erabaki arte. Orduan jatorrizko testua banatuko diezu, eurenarekin aldera dezaten.

– *Adibidea*

*Pantera*⁵

(Parisko Jardin des Plantes-en)

*Urterik urte bere aurretik pasatzen barroteak,
burmuina bera itsutu arte azkenean.
Begiak zabal-zabalik, hau baino ez du ikusten finean:
barroteak, barroteak, barroteak, eta hustasuna atzean.
Eta urrats bigunez, grazia zinbelaz dabilela kaiolan,
bere borobil ttikia markatzen, jira eta jira,
irudi du, indartsu, diharduela dantzan
sorgorturik dagoen gogo ahaltsuari inguruka
Batzuetan gortina lipar batez apartatzen da.
Irudi bat sartzen da, begien aurrean keinuka,
zain dagoen gorputzean barneratu ziztuan,
bidea zuzen egin bihotzeraino, eta hil egiten da.*

(Rainer Maria Rilke)

– *Azalpena*

Usteak iruntzitara jartzea da hemen prozedura nagusia. Normalean espero dugu diktaketa geldoa izatea, enfatizatua eta etenez betea. Ahozko testua idatzizko testu gisa transkribatzeko era bat izan ohi da diktaketa. Hemen ariketak testuaren berrosaketa aktiboa eskatzen du, eta ez transkribapen hutsa. Eta normalean ikasleei ez zaie esaten informazioa konpartitzeko. Horixe da Davis eta Rinvolucrí-k (1988) eskainitako diktaketaren berformulazio kreatiboetako bat. Wajnryb-ek (1990) proposatutako Dictocomp ariketaren forma bat da. Jakina, irakasleak ikasleen mailaren arabera hautatuko du testua.

5. Testua sinplifikatuz

– *Deskribapena*

Aukeratu benetako testu bat (ipuin batetik, egunkari artikulua batetik etab.), hizkuntz aldetik nahiko mamitsua dena (hiztegi zaila, sintaxi korapilatsua etab.). Esan ikasleei testu horren bertsio sinplifikatua idazteko, maila apalagoko ikaskideek irakurtzeko moduan. Orduan bertsioak konparatu eta egokiena zein iruditzen zaien erabakiko dute.

– *Adibidea*

Marian Salcedo, bulegari nagusia, bigarren mailakoa, bere mahaira joan zen ziztuan, nominan eginak zizkioten atxikipenak aztertzeraz. Uztailaren hamabostan zen, eta hurrengo egunean Manilara joango zen, bost urte lehenagotik zor zioten promozioaz galdetzeraz. Hogeitazko urte zeramatzan Ministerioan, eta azken bost urteetan hainbeste igo zen bizitzaren kostua,

non ziur zegoen promozio hori barik bere seme gaztea ezin izango zela uni-bertsitatara joan. Eta orain etxearen eta alorraren kontra lortutako mailegu horrena ere bazegoen, hiru urte lehenago eskatu zutena, senarra ospitalera eraman zutenean; eta bankuak orain jakinarazten zien enbargatu egingo zizkiela. Etxea eta alorra ziren euren jabego bakarra, eta esklabuen moduan lan egindakoak ziren eurongatik ia bi hamarkadan barrena.

(Iturria: “Progress”, Frankie Sionil Jose)

Bertsio sinplifikatua:

Maria Salcedo bigarren mailako bulegari nagusia zen Ministerioan. Hogei urte zeramatzan Ministerioan lanean. Bere mahaira joan zen ziztuan, uztailaren hamabosta baitzen, kobratzeko eguna. Jakin nahi zuen zenbat diru atxikia zioten soldatatik hilabete horretan.

Hurrengo egunean Manilara joateko asmoa zuen. Bere promozioak bost urteko atzerapena zuen, eta horretaz galdetu gura zion Ministerioari.

Azken bost urteetan bizitzaren kostua asko igo zen. Promozioa lortzen ez bazuen, ezin izango zuen seme gazteena unibertsitatara bidali.

Etxeaz eta lursailaz ere arduratuta zegoen. Beren jabego bakarra zen. Oso gogor egin zuten lan hogeï urtez beroriek erosteko. Alabaina, hiru urte lehenago senarra ospitalera eraman zutenean, mailegu bat eskatua zion bankuari. Orain bankuak dirua nahi zuen atzera, edo bestela etxea eta lurra kenduko zizkien.

– Azalpena

Hemen berformulaketaren heuristika dugu gakoa. Ariketa honen bidez ikasleek sakonetik aztertzen dute testua. Lehendabizi erabaki behar dute non sor daitezkeen zailtasunak. Gero hizkera berformulatu behar dute, eta agian baita informazioa berrantolatu ere, testua irakurgarriago egin aldera. Harritu daitezke konturatzean testu bat sinpleago egiteko maiz luzatu egin behar izaten dela. Zeregin konplexu eta lantsua da, baina aldi berean aukera bakana da ikasleek testua bere egiteko. Erabilgarri gerta dakizuke bolada batean honelako testu sinplifikatuak biltzea maila apalagoko taldeetan erabiltzeko: ikasleek egindako materialak, “par excellence”.

Ondorioak

Orain artekoan argudiatu dudanez, guztiok erabili ahal dugu sormena, gutxi-asko, hizkuntzak ikasteko materialak diseinatzerakoan. Hasieran gerta dakiguke saio gisa edo modu mekanikoan aplikatzea gorago aipatu ditudan heuristiketako batzuk, baina denborarekin bide berriak bilatzeko gogoia egingo zaigu, formula horiek modu intuitiboagoan erabiltzeko. Guk geuk ariketa kreatiboak aurkitu ahala, geure ahalmen sortzaileaz ere jabetuko gara... eta konfiantza hartuko dugu ahalmen hori ustiatzeko. Emaitzetako bat izango da gure ikasleak ere kreatiboago bihurtuko direla gure laguntzaz ikasten ari diren hizkuntza erabiltzean.

Artikulu hau ixteko, Colin Mortimer zenaren aipu bat ekarri nahi nuke hona, suerteak sekula ezagutzera eman didan material-idazle kreatiboenetako baten hitzak. Hala idatzi zuen orain dela hogeï bat urte: “Hizkuntzak ikasteko elkarriketa, ipuin edo bestelako material bereziak

idazten ditugunontzat, batzuetan osasungarria izaten da gure lanaren mugak gogoan hartzea... baina poeta batek hamalaukoaren muga estuak gogoan izango lituzkeen moduan... hau da, ahalegin kreatiboarentzako akuilu eta erronka legez, eta ez lan kolorgerako aitzakia gisa". (Mortimer, 1975).

Nik neuk bat egiten dut, bihotzez, gure materialei dotorezia artistiko pixka bat eransteko aldarrikapen horrekin. Deskribatu ditudan ariketak horri erantzutea baino ez dut espero, neurri ttikian balitz ere.

Singapore-ko Unibertsitate Nazionalea
1997ko urtarrilaren 13a

Itzultzailea: Boni Urkizu

Oharrak

- 1 CLL: taldeko hizkuntz ikaskuntza. I.O.
- 2 TPR: erantzun fisiko osoan.
- 3 Adibideetako testu guztien itzulpena artikulua osoa itzuli duen itzultzailearenak dira. I.O.
- 4 Jatorrizko adibidea *villanelle* bat da, bi errimako ahapaldi frantses bat, honako ezaugarriak dituen: bost hirukok eta lauko batek osatzen dute, eta lehen hirukoaren 1. eta 3. lerroen errima hurrengo hirukoaren azken lerroan eta laukoaren azken bi lerroetan errepikatzen da. Gure itzulpenak leloak mantendu ditu, baina ez errimak. Hona hemen jatorrizkoa:

"Our love is coming to an end./The feelings that we thought we had have lied./We think that we know what we intend./There are no letters left to send./There flowers we grew together have just died./Our love is coming to an end.

/There's no emotion left to spend;/All the solutions have been tried./We think we know what we intend.

/I cannot change from lover into friend;/We both would be dissatisfied./Our love is coming to an end./The veil of love begins to rend./We now know that we must decide./We think we know what we intend./We've plumbed the depths we must descend./We're drowning in the tears we cried./Our love is coming to an end;/We think we know what we intend".

Taldeko irakurketa orkestraturako euskal testu egokiak izan daitezke, besteak beste, "Leisibatxu" edo "Frantzie kortekoa" herri baladak, Arestiren "Iparragirreraren bozean noa" poema, Atxagaren "Soomaliya" poema, edo bertsolari-tzatik ateratako mila adibide. I.O.

- 5 Poema hau ingelesetik euskaratu dugu, ez jatorrizko alemanetik. Bi bertsio ingeles erabili ditugu, Michael Swan-ena eta Walter Arndt-ena. I.O.